

Agintariak eta Langileria

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRIZAINGO SAILA

ERABAKIA, 1996ko uztailaren 24koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Krimen Ikerketarako ofizial-ondoko izateko, Ertzaintza-ko Ikuskaritza Eskalako ofizial-ondokoei espezializazio ikastarora sartzeko oposaketarako deia egiteko dena. 13751

Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

188/1996 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Ertzaintzaren 1996rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena. 13759

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA ETA OSASUN SAILA

4182

200/1996 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikustatzeko eta haragi horren osasun kontrolaz arduratzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen aplikazioa arautzen duena.

Maiatzaren 10eko 3/1996 Legearen bitartez onartu ziren haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikustatzeko eta haragi horren osasun kontrolaz arduratzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak. Lege horrek ordezkatu egin zituen Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioaren Ariel eta Herri-Prezioei buruz maiatzaren 31n eman zen 3/1990 Legearen II. Idazpuru IX. Atalburuko 3.12.02 sekzioaren («Haragi freskoen osasun ikuskaketa eta arakaketa zerbitzuengatik ariela») 133. ataletik 137.era arautzen diren tasak.

Autoridades y Personal

Cursos de formación y perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

RESOLUCIÓN de 24 de julio de 1996, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca oposición para el acceso al Curso de Especialización destinado a los Suboficiales de la Escala de Inspección de la Ertzaintza que deseen adquirir la condición de Suboficial de Investigación Criminal. 13751

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

DECRETO 188/1996, de 23 de julio de 1996, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo para el año 1995, del Personal de la Policía Autónoma del País Vasco. 13759

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y DEPARTAMENTO DE SANIDAD

4182

DECRETO 200/1996, de 30 de julio, por el que se regula la aplicación de las Tasas por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral.

La Ley 3/1996, de 10 de mayo, aprueba las tasas por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral, que ha sustituido a las reguladas en los artículos 133 al 137 de la Sección 3.12.02 «Tasa por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas» del Capítulo IX del Título II de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3/1996 Legean jasotako berrikuntzetako baten arabera, zergapekoaren ordezkoez ere ordaindu behar dute tasa hori. Tasaren kitapenari dagokionez, ordezko horiek berez egingo dute, behin zenbatekoa fakturan kargatu ondoren. Beraz, 3/1996 Legean bertan aurreikusten dira hala tasa fakturan kargatu beharra nola kitapena egiteko era eta epeak.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Osasun sailburuaren proposamenez, Jaur-laritzaren Kontseiluak 1996ko uztailaren 30eko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Xedea.

Maiatzaren 10eko 3/1996 Legearen 2. idaztiaren 3. atalaren arabera, haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikustatzeko eta haragi horren osasun kontrolaz arduratzeko zerbitzuengatik tasa zergapekoaren orde-zko gisa ordaindu behar dutenek, animaliak hiltzeko, zatitzeko edo haragi freskoa gordetzeko dituzten estab- lezimentuetan egiten diren ikuskaketa edo kontrol operazioen deklarazioak-kitapenak Osasun Saileko dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkez ditzaten jarraitu beharreko prozedura arautzea da Dekretu honen xedea.

2. atala.- Tasa kargatzea.

Tasa ordaintzera behartuta daudenek, zergapetutako operazioa halakoari egin badiote, horri kargatu beharko diote tasaren zenbateko osoa eta bezeroek ordaindu egin beharko dute, bien arteko estipulazioak direnak direla eta, beti ere, karguak Dekretu honetan xedatuta-koari egokitzen bazaizkio.

3. atala.- Tasa kargatzeko formazko eskakizunak.

1.- Tasa fakturaren edo antzeko agiriren baten bitartez kargatuko da.

Ondorio horietarako, kargatutako tasa kontzeptuka xehatuta emango da, emandako zerbitzuen kuoten ara-bera.

2.- Tasa kargatzeari buruz sor daitezen liskarrak, hala karguaren jatorriari nola zenbatekoari buruzkoak, zerga-izaera izango dute, bide ekonomiko-administrati- boko erreklamazioei dagokionez.

4. atala.- Tasa kargatzeko denbora-betekizunak.

1.- Faktura edo antzeko agiria luzatu eta ematera-koan kargatuko da tasa, beti ere sortzapen-egunetik bost urte igaro ez badira.

2.- Tasarekin zergapetutako operazioaren destinatario ez da behartuta egongo tasa sortzapen momentua baino lehen ordaintzera.

5. atala.- Fakturretan kargatutako zerga-kuoten zuzenketa.

1.- Fakturretan kargatutako zerga-kuoten zuzenketa kasu hauetan egingo da: kuota horiek ezartzerakoan

La Ley 3/1996 introduce como novedad la figura del obligado del pago de la tasa en calidad de sustituto del contribuyente, el cual va a autoliquidar la tasa, después de haberla repercutido en factura. Por tanto, la propia Ley 3/1996 prevé que se desarrolle las obligaciones for- males de repercusión de la tasa en factura y de la forma y plazos de autoliquidación de la tasa.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Sanidad, pre- via deliberación y aprobación del Consejo del Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de julio de 1996,

DISPONGO:

Artículo 1.- Objeto.

El objeto del presente Decreto es regular el procedi- miento para que los obligados al pago de la tasa por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral, a que se refiere el artí- culo 3, apartado 2, de la Ley 3/1996, de 10 de mayo, en calidad de sustitutos del contribuyente, puedan presen- tar en la correspondiente Delegación Territorial del Departamento de Sanidad las declaraciones-liquidacio- nes de las operaciones de inspección o control sanitario efectuadas en sus establecimientos destinados al sacrifi- cio, despiece o almacenamiento de carnes frescas.

Artículo 2.- Repercusión de la tasa.

Los obligados al pago de la tasa deberán repercutir íntegramente el importe de la tasa sobre aquél a quien se realice la operación gravada, quedando éste obligado a soportarla siempre que la repercusión se ajuste a lo dispuesto en este Decreto, cualquiera que fueran las estipulaciones existentes entre ellos.

Artículo 3.- Requisitos formales de la repercusión.

1.- La repercusión de la tasa deberá efectuarse mediante factura o documento análogo.

A estos efectos la tasa repercutida deberá desglosarse separadamente por conceptos de cuotas de los servicios prestados.

2.- Las controversias que puedan producirse con referencia a la repercusión de la tasa, tanto respecto a la procedencia como a la cuantía de la misma, se conside- rarán de naturaleza tributaria a efectos de las correspon- dientes reclamaciones en la vía económico-administra- tiva.

Artículo 4.- Requisitos temporales de la repercu- sión.

1.- La repercusión de la tasa deberá efectuarse al tiempo de expedir y entregar la factura o documento análogo correspondiente, siempre que no hayan trans- currido cinco años desde la fecha del devengo.

2.- El destinatario de la operación gravada por la tasa no estará obligado a soportar la repercusión del mismo con anterioridad al momento del devengo de la misma.

Artículo 5.- Rectificación de las cuotas impositivas repercutidas en las facturas.

1.- La rectificación de las cuotas impositivas reper- cutidas deberá efectuarse en los casos de error de hecho

egitezko edo zuzenbidezko akatsik egin bada, zenbatekoa zehazten duten zirkunstantziak aldatzen badira eta, azkenik, tasarekin zergapetutako operazioak eraginik gabe gelditzen badira.

2.- Akatsa antzeman edo aurreko atalean zehazten diren zirkunstantziak gertatu eta berehala egingo da zuzenketa, beti ere, zergapetutako operazioari dagokion tasa sortu zenetik edo, hala badagokio, kontraprestazioa aldatu duten edo zergapetutako operazioaren eraginik eza ekarri duten zirkunstantziak gertatu ziren egunetik bost urte igaro ez badira.

6. atala.- Kuoten kitapenari buruzko erregistro liburua.

1.- Hiltzeko, zatitzeko edo haragi freskoa biltegi-ratzeko establezimentuetako titularrek, tasa ordaintzera behartuta badaude, tasaren kitapenari buruzko erregistro liburua behar bezala eramango dute establezimentu bakoitzean eta bertan idatziko dira, behar bezala bereizita, tasaren kitapenaren kontzeptu desberdinak.

Dena den, baliozkoa izango da prozedura egoki baten bitartez orrietan idazpenak edo oharpenak egitea, beti ere, orri horiek zenbakitu eta hurrenkeran enkoardernatzen badira, erregistro liburua osatuz.

2.- Erregistro liburuan banan banan inskribatuko dira zerbitzua eskatu dutenei edo hiltze, zatitze edo biltegi-ratzeko operazioak egin zaizkienei egindako ekin-tza guztiak. Gainera, Dekretu honetan onartu eta III. eraskinean eskaintzen den ereduaren tasa likidatzeko derrigorrezkotzat jotzen diren datuak ere jasoko dira.

3.- Erregistro liburua horretarako gaituko da eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak onetsi beharko du, lurralde ordezkari bitartez.

Dena den, Osasun Sailak onetsi egin dezake, egoki iritzitako egiaztapenak egin ondoren, 1. idatzian aipatutako erregistro liburuaren ordezkari bestelako erregistro sistema bat erabiltzea, beti ere, subjektu pasiboaren administrazio eta kontabilitate antolaketari egokitzen bazaio eta tasarekiko zerga-betebeharren egiaztapena bermatzen bada. Baimen horiek edozein momentutan baliogabe daitezke.

7. atala.- Formazko betekizunak.

1.- Erabiltzen den prozedura dena dela, erregistro liburua zehatz-mehatz eta argi eramango da, daten hurrenkeran eta zuriunerik, tartekapenik, urradurarik edo ezabapenik gabe. Bestalde, operazio eta kuoten oharpenetan antzemandako akats edo hutsak berehala salbatuko dira.

Ekonomi arloko oharpenetan zenbatekoak pezetatan adieraziko dira.

2.- Erregistro liburuko orriak hurrenkeran zenbatuko dira.

8. atala.- Erregistroko oharpenetarako epeak.

o de derecho en la fijación de las mismas, cuando varíen las circunstancias determinantes de su cuantía o, finalmente, cuando queden sin efecto las operaciones gravadas por la tasa.

2.- La rectificación se efectuará inmediatamente después de advertirse el error o producirse las demás circunstancias que se indican en el apartado anterior, siempre que no hubiesen transcurrido cinco años a partir del momento en que se devengó la tasa correspondiente a la operación gravada o, en su caso, de la fecha en que se hayan producido las circunstancias modificativas de la contraprestación o determinantes de la ineficacia de la operación gravada.

Artículo 6.- Libro Registro de liquidación de cuotas.

1.- Los titulares de los establecimientos destinados al sacrificio, despique o almacenamiento de carnes frescas, obligados al pago de la tasa, deberán llevar, en debida forma, el Libro Registro de liquidación de las cuotas de la tasa en cada establecimiento, en el que se anotarán, con la debida separación, los diferentes conceptos de la liquidación de la tasa.

Será válida, sin embargo, la realización de asientos o anotaciones, por cualquier procedimiento idóneo, sobre hojas que después habrán de ser numeradas y encuadradas correlativamente para formar el Libro Registro.

2.- En el Libro Registro se inscribirán una por una las distintas actividades prestadas a cada solicitante de la prestación del servicio o para quienes se realicen las operaciones de sacrificio, despique o almacenamiento, reflejando los distintos datos necesarios para la liquidación de la tasa de acuerdo con el modelo aprobado en este Decreto que se recoge en el anexo III:

3.- Este Libro Registro deberá ser habilitado al efecto y autorizado por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, a través de sus Delegaciones Territoriales.

No obstante, el Departamento de Sanidad podrá autorizar, previas las comprobaciones que estime oportunas, la sustitución del Libro Registro mencionado en el apartado 1 anterior por otro sistema de registro diferente, siempre que responda a la organización administrativa y contable del sujeto pasivo y al mismo tiempo quede garantizada la comprobación de las obligaciones tributarias por la tasa. Dichas autorizaciones serán revocables en cualquier momento.

Artículo 7.- Requisitos formales.

1.- El Libro Registro debe ser llevado, cualquiera que sea el procedimiento utilizado, con claridad y exactitud, por orden de fechas, sin espacios en blanco, interpolaciones, raspaduras ni tachaduras. Deberán salvarse a continuación, inmediatamente que se adviertan, los errores u omisiones padecidos en las anotaciones de las operaciones y cuotas.

Las anotaciones de contenido económico deberán ser hechas expresando los valores en pesetas.

2.- Las páginas del Libro Registro deberá estar numeradas correlativamente.

Artículo 8.- Plazos para las anotaciones registrales.

Erregistroan jaso beharreko operazioak kronologiko-ki idatziko dira erregistro liburuan, hau da, egin diren momentuan edo, edozein kasutan, likidazioa eta borondatezko aldiko ordainketa egiteko legezko epea amaitu aurretik.

9. atala.- Oharpenen zuzenketa.

1.- Fakturretan kargatutako kuotak zuzenduz gero, tasa ordaintzera behartuta daudenek erregistroko oharpenak ere zuzendu beharko dituzte. Horretarako, kitapen aldi bakoitzaren amaieran, zuzenketa idazpen edo idazpen multzo bakarrean jasoko dira.

2.- Idazpen edo idazpen multzo hori gainontzeko oharpenetatik bereizita egongo da eta bertan zehatz adieraziko dira baliogabetzen edo zuzentzen diren fakturak edo bestelako agiriak, horien zenbatekoak, aldaketa edo baliogabetzea eragin duen agiriaren zenbakia edo erreferentzia zehatza eta, zuzenketa baldin bada, agiri edo faktura horien arabera erregistratu beharreko zenbateko berriak.

3.- Azkenik, baliogabetze edo aldatze idazpenaren edo idazpen multzoaren guztirako zenbatekoak idatziko dira eta berariaz aipatuko dira bai zuzenketa egin direneko kitapen aldiko kenketak bai sortutako zergakuota kalkulatzeko beharrezko diren gorako edo behe-rako aldaketak.

10. atala.- Tasaren kitapena. Arau orokorrak.

1.- Tasa ordaintzera behartuta daudenek berek zehaztu beharko dute zerga-zorra eta, horretarako, jarraian datozen idazatietan jasotzen diren arauen arabera aitorpena-kitapena egin beharko dute. Salbuespen izango dira maiatzaren 10eko 3/1996 Legearen 4. ataleko 2. idazatian aipatzen diren erantzule subsidiarioak.

2.- Aitorpenak-kitapenak zuzenean edo aitorpen-kitapen ereduaren aipatzen diren finantza-entitateen bitartez aurkeztu ahalko dira.

3.- Kitapen aldia hilabete naturalarekin bat etorriko da.

4.- Aitorpena-kitapena Dekretu honetako I. eraskinean eskaintzen den ereduaren arabera izango da eta, kitapen aldia halako hilabeteri badagokio, hurrengo hilabeteko lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar aurkeztu beharko da.

Dena den, uztaileko kitapen aldiari dagozkion aitorpenak-kitapenak abuztu osoan eta iraileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar aurkeztu ahalko da.

5.- Aurreko 4. zenbakian aipatzen diren aitorpenak-kitapenez gain, subjektu pasiboek aitorpen-laburpen bat aurkeztu beharko dute urtero, Dekretu honetako II. eraskinean eskaintzen den ereduaren arabera.

Urteko aitorpen-laburpen horiekin batera, urteko

Las operaciones que hayan de ser objeto de anotación registral deberán hallarse asentadas cronológicamente en el Libro Registro, en el momento de su realización o, en cualquier caso, antes de que finalice el plazo legal para realizar la referida liquidación y pago en período voluntario.

Artículo 9.- Rectificación de las anotaciones.

1.- En los supuestos de rectificación de las cuotas repercutidas en las facturas, los obligados al pago de la tasa deberán rectificar igualmente las anotaciones registrales correspondientes en un asiento o grupo de asientos único al finalizar cada período de liquidación.

2.- A tal efecto, dicho asiento o grupo de asientos deberá, debidamente diferenciado del resto de las anotaciones, especificar de forma precisa las facturas o demás documentos que se anulan o rectifican, la cantidad por la que se encontraban contabilizados los mismos, la enumeración o referencia clara al documento que da origen a la variación o anulación, y las nuevas cantidades a registrar, en caso de rectificación, según dichos documentos o facturas.

3.- Finalmente se anotarán los totales del asiento o grupo de asientos de variación o anulación, haciendo mención expresa a las correcciones en más o en menos que sean pertinentes a efectos del cálculo de la cuota impositiva devengada y de las deducciones del período de liquidación al final del cual se han realizado dichas rectificaciones.

Artículo 10.- Liquidación del Tasa. Normas generales.

1.- Los obligados al pago de la tasa deberán realizar por sí mismos la determinación de la deuda tributaria mediante declaración-liquidación ajustadas a las normas contenidas en los apartados siguientes, con la excepción de los responsables subsidiarios a que se refiere el artículo 4, apartado 2, de la Ley 3/1996, de 10 de mayo.

2.- Las declaraciones-liquidaciones deberán presentarse directamente o a través de las Entidades financieras que se indican en el modelo de declaración-liquidación.

3.- El período de liquidación coincidirá con el mes natural.

4.- La declaración-liquidación deberá ajustarse al modelo que se adjunta al presente Decreto como anexo I y presentarse durante los veinticinco primeros días naturales del mes siguiente al correspondiente período de liquidación mensual.

Sin embargo, las declaraciones-liquidaciones correspondientes al período de liquidación del mes de julio, podrán presentarse durante el mes de agosto y los veinte primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posteriores.

5.- Además de las declaraciones-liquidaciones a que se refiere el número 4 anterior, los sujetos pasivos deberán formular una declaración-resumen anual, según el modelo que se adjunta al presente Decreto como anexo II.

A esta declaración-resumen anual se adjuntarán

kitapen aldi guztiei dagozkien aitortenak-kitapenak aurkeztuko dira.

Urteko aitorten-laburpena urteko azken kitapen aldiko aitortenarekin-kitapenarekin batera aurkeztuko da.

11. atala.– Tasaren bilketa. Arau orokorrak.

1.– Tasa ordaintzera behartuta dagoenak edo bere ordezkariak zuzenean sartuko ditu, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak baietsitako kontuetan, aitorpenei-kitapenei dagozkien kuoten zenbatekoa, horiek aurkeztu dituen momentuan.

Haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikusatzeko eta haragi horren osasun kontrolaz arduratzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasengatik ordainketak ezin izango dira egin atal honetan zehazten den moduan baino.

12. atala. Ofizioko behin-behineko kitapena. Noiz aplikatu.

1.– Subjektu pasiboak berak ez badu tasa Dekretu honetako 10. atalean zehazten den moduan kitatzen eta ez badio kasurik egiten aitortena-kitapena aurkezteko eskaerari, Osasun Saileko lurralde ordezkarietzek ofizioko behin-behineko kitapenak egingo dituzte.

2.– Ofizioko behin-behineko kitapenetan, subjektu pasiboak berak kitatu beharko zukeen zerga-zorra taxutuko da eta, hala badagokio, zigor-espedientea irekiko da.

13. atala.– Ofizioko behin-behineko kitapena. Prozedura.

1.– Aitortena-kitapena Dekretu honetan aurreikusten den epean aurkeztu ez izanagatik Osasun Saileko Lurralde Ordezkarietzak egindako errekerimentua subjektu pasiboari jakinarazi eta handik hogeita hamar astegunera, ofizioko behin-behineko kitapena egiteko prozedura hasi ahalko da.

2.– Ofizioko behin-behineko kitapena Osasun Sailak dituen eta horretarako garrantzizkoak diren datu, aurrerakin, elementu, zeinu, indize edo moduluetan oinarrituko da.

3.– Espedientea dagokionari erakutsiko zaio, hamar eguneko epe luzaezinean nahi dituen arrazoibideak aurkez ditzan.

4.– Ofizioko behin-behineko kitapena subjektu pasiboaren arrazoibideak jaso ondoren edo hori egiteko epea amaitu ondoren egingo dute Osasun Saileko lurralde ordezkarietzek.

5.– Kitapena espedienteari gaineratuko zaio eta, hamar eguneko epean, interesatuei jakinaraziko zaie.

14. atala.– Ofizioko behin-behineko kitapenaren ondorioak.

1.– Ofizioko behin-behineko kitapenak betearaz-

ejemplares de las declaraciones-liquidaciones correspondientes a todos los períodos de liquidación del año.

La mencionada declaración-resumen anual deberá presentarse conjuntamente con la declaración-liquidación correspondiente al último período de liquidación de cada año.

Artículo 11.– Recaudación del Tasa. Normas generales.

1.– El importe de las cuotas liquidadas resultantes de las declaraciones-liquidaciones se ingresará directamente por el obligado al pago de la tasa o su representante, en el momento de su presentación, en las cuentas autorizadas por el Departamento de Hacienda y Administración Pública.

No podrán efectuarse ingresos por las Tasas por los servicios de inspección y control sanitario de carnes frescas y carnes de aves de corral por procedimientos distintos de los previstos en el presente artículo.

Artículo 12.– Liquidación provisional de oficio. Supuestos de aplicación.

1.– Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad practicarán liquidaciones provisionales de oficio cuando el sujeto pasivo incumpla el deber de autoliquidar la tasa en los términos prescritos en el artículo 10 de este Decreto y no atienda al requerimiento para la presentación de declaración-liquidación por ella formulado.

2.– Las liquidaciones provisionales de oficio determinarán la deuda tributaria estimada que debería haber autoliquidado el sujeto pasivo, abriéndose, en su caso, el correspondiente expediente sancionador.

Artículo 13.– Liquidación provisional de oficio. Procedimiento.

1.– Transcurridos treinta días hábiles desde la notificación al sujeto pasivo del requerimiento de la Delegación Territorial del Departamento de Sanidad para que efectúe la presentación de la declaración-liquidación que no realizó en el plazo previsto en este Decreto, podrá iniciarse el procedimiento para la práctica de la liquidación provisional de oficio.

2.– La liquidación provisional de oficio se realizará en base a los datos, antecedentes, elementos, signos, índices o módulos de que disponga el Departamento de Sanidad y que sean relevantes al efecto.

3.– El expediente se pondrá de manifiesto al sujeto afectado para que, en el plazo improrrogable de diez días, efectúe las alegaciones que tenga por conveniente.

4.– Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad practicarán la liquidación provisional de oficio con posterioridad a la recepción de las alegaciones del sujeto pasivo o de la caducidad de dicho trámite.

5.– La liquidación será incorporada al expediente y se notificará a los interesados en el plazo de diez días.

Artículo 14.– Efectos de la liquidación provisional de oficio.

1.– Las liquidaciones provisionales de oficio serán

leak izango dira, berehala, legeetan xedatutakoaren arabera horien aurka aurkez daitezkeen arrazoibideen kalterik gabe.

2.- Ondoren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak subjektu pasiboen zerga-egoera aztertu ahal izango du eta egin beharreko behin-betiko kitapenak egingo ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Guzti hori aurreko ataletan xedatutakoaren kalterik gabe.

15. atala.- Albaitaritza arloko langile urgazleengatiko eta laguntzaileengatiko gehikinen kenketa.

Ganadua hiltzeko ezein establezimenduk bere aitorpenetan-kitapenetan albaitaritza arloko langile urgazleengatiko eta laguntzaileengatiko kenketak aurkezten baditu, Osasun Saileko lurralde ordezkariak ikusketak egingo dizkiote, aldiro-aldiro, langile horiek benetan hor dihardutela egiaztatzeko, maiatzaren 10eko 3/1996 Legearen 10. ataleko 6. idazatian aurrikusitakoa betez.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

1996ko ekaineko kitapen aldiari dagozkion aitorpenak-kitapenak abuztu osoan eta iraileko lehenengo hogeita egun naturaletan zehar aurkeztu ahalko da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 30ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

inmediatamente ejecutivas, sin perjuicio de las correspondientes reclamaciones que puedan interponerse contra ellas de acuerdo con lo establecido por las leyes.

2.- Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos anteriores el Departamento de Hacienda y Administración Pública podrá efectuar ulteriormente la comprobación de la situación tributaria de los sujetos pasivos, practicando las liquidaciones definitivas que procedan con arreglo a lo dispuesto en la normativa vigente.

Artículo 15.- Deducción del coste suplido del personal auxiliar veterinario y ayudantes.

Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad comprobarán de forma periódica en los establecimientos dedicados al sacrificio de ganado la existencia de personal auxiliar veterinario y ayudantes en aquellos que presenten deducciones por este motivo en sus correspondientes declaraciones-liquidaciones, de acuerdo con lo previsto en el apartado 6 del artículo 10 de la Ley 3/1996, de 10 de mayo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las declaraciones-liquidaciones correspondientes al período de liquidación del mes de junio de 1996, podrán presentarse durante el mes de agosto y los veinte primeros días naturales del mes de septiembre inmediatamente posteriores.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

I. ERASKINA / ANEXO I

EUSKO JAURLARITZA
OSASUN SAILAGOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Tasas por los servicios de inspección y control de carnes frescas y carnes de aves de corral
Haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikuskatzeko eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko
zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak

Hilabetereko Aitopen-Likidazioa / Declaración-Liquidación Mensual

Ekitaldia/Ejercicio 199..	Epealdia/Período
---------------------------	------------------

Zkia./Nº.....

OSASUN PUBLIKORAKO ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DE SALUD PÚBLICA

ZERGADUNA / OBLIGADO TRIBUTARIO

N.A.N. edo I.F.Z. / D.N.I. o C.I.F	DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJATEAREN IZENA / APELLIDOS Y NOMBRE O RAZÓN SOCIAL
------------------------------------	---

HELBIDEA / DOMICILIO

LIKIDAZIOA / LIQUIDACIÓN

Gaia / Concepto	Abere-mota / Clase de ganado	Unitate kop. / nº de unidades	Kuotak Guztira / Total Cuotas
Abereak hiltzea / sacrificio de animales Kanalak zatitzea / operaciones de despiece Biltegiatzea kontrolatzea / control de almacenamiento			
Administrazio gastuak / gastos administrativos			
Hondakinak aztertzeagatik / por investigación de residuos			
TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS		1	

Kenketak, administrazio gastuengatik / deducciones por gastos administrativos

Kenketak, albari-laguntzaileen kostuengatik / deducciones por costes de auxiliares veterinarios

KENKETAK GUZTIRA / TOTAL DEDUCCIONES

2

Data / Fecha:

Sinadura eta Zigula / Firma y fecha:

EMAITZA / RESULTADO

1 - 2

BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DEMORA

SARTU BEHARREKOA / A INGRESAR

ORDAINKETA-GUTUNA / CARTA DE PAGO

ZIGILUA ETA SINADURA
SELLO Y FIRMAERAKUNDEAREN GAKOA
CLAVE ENTIDADEGUNA
FECHAZENBATEKOA
IMPORTE

ARGIBIDE GEHIAGO ATZEKALDEAN

(*) MAS INFORMACION AL DORSO

ERREKURTSOAK

Adierazi zaizun kitapenakerekin ados ez bazaude, jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik hastia hamabost eguneko epea izango duzu kitapena egin zuen sailaren aurrean berraztertze-eskea aurkezteko.

Berraztertze-eskeari buruz hartutako erabakiaren aurka edo, hori egin ezean kitapenaren aurka zuzenean aurkeztu ahal izango da ekonomi eta administrazio alorreko murtziloa "Euskadiko Ekonomia Ardularitzako Epaitegia/Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi"-ren aurrean, hamabost eguneko epea izango da horretarako eta murtziloari buruzko erabakiak administrazio-bideari azken emango diola jakin eraziko da.

FINANTZA ENTITATEAK

Aitorpen-likidazioak ondoko finantza-entitateetan aurkez daitezke:

Araba:
Bizkaia:
Gipuzkao:

RECURSOS

Caso de disconformidad contra la liquidación que ahora se le notifica podrá interponer en el plazo de quince días hábiles, contados a partir del día siguiente al recibo de la presente notificación, recurso de reposición ante el órgano que dictó la liquidación.

Contra la presente resolución del recurso de reposición o directamente contra la liquidación, si no se interpone aquél, podrá presentarse reclamación económico-administrativa ante el "Euskadiko Ekonomia-Ardularitzako Epaitegia/Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi en el plazo de quince días, advirtiéndole que la resolución de la reclamación pondrá fin a la vía administrativa.

ENTIDADES FINANCIERAS

Las declaraciones-liquidaciones podrán presentarse en las siguientes Entidades financieras:

Álava:
Bizkaia:
Gipuzkoa:

II. ERASKINA / ANEXO II

EUSKO JAURLARITZA
OSASUN SAILAGOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Tasas por los servicios de inspección y control de carnes frescas y carnes de aves de corral
Haragi freskoa eta oilategiko hegaztien haragia ikuskatzeko eta haragi horren osasun-kontrolaz arduratzeko
zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak

Urteko Laburpen-Likidazioa / Declaración-Resumen Anual

Ekitaldia/Ejercicio 199..

Zkia./Nº.....

OSASUN PUBLIKORAKO ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DE SALUD PÚBLICA

ZERGADUNA / OBLIGADO TRIBUTARIO

N.A.N. edo I.F.Z. / D.N.I. o C.I.F DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJATEAREN IZENA / APELLIDOS Y NOMBRE O RAZÓN SOCIAL

HELBIDEA / DOMICILIO

LIKIDAZIOA / LIQUIDACIÓN

Gaia / Concepto	Abere-mota / Clase de ganado	Unitate kop. / nº de unidades	Kuotak Guztira / Total Cuotas
Abereak hiltzea / sacrificio de animales Kanalak zatitzea / operaciones de despiece Biltegiatzea kontrolatzea / control de almacenamiento			
Administrazio gastuak / gastos administrativos			
Hondakinak aztertzeagatik / por investigación de residuos			
TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS		1	

Kenketak, administrazio gastuengatik / deducciones por gastos administrativos

Kenketak, albatzari-laguntzaileen kostuengatik / deducciones por costes de auxiliares veterinarios

KENKETAK GUZTIRA / TOTAL DEDUCCIONES

2

Data / Fecha:

Sinadura eta Zigula / Firma y fecha:

EMAITZA / RESULTADO

1 - 2

BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DEMORA

SARTUTAKO GUZTIRA / TOTAL INGRESADO

HILTZEKO, ZATITZEKO ETA BILTEGIRATZEKO KUOTEN LIKIDAZIO ERREGISTROA LIBURUA
 LIBRO REGISTRO DE LIQUIDACIÓN DE CUOTAS POR LA ACTIVIDAD DE SACRIFICIO, DESPIECE Y ALMACENAMIENTO

IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA / NOMBRE O RAZON SOCIAL:

N.A.N. edo I.F.Z. / N.I.F. o C.I.F.:

HELBIDEA / DOMICILIO:

EGUNA FECHA	SARRERAKO AGIRIAREN ZENBAKIA NUMERO DOC. ENTRADA	ABERE MOTA GAKOA CLASE DE GANADO CLAVE	UNITATE KOP. Nº UNIDADES	PISUA PESO	HILTZEKO, ZATITZEKO ETA BILTEGIRATZEKO TASAK		ADMINISTRAZIO GASTUEN TASAK		HONDAKINAK AZTERTZEAGATIK TASAK		TASAK GUZTIRA TOTAL PTS	KENKETAK, ADMINISTRAZIO GASTUENGATIK		KENKETAK, ALBAITARI- LAGUNTZAILEEN KOSTUENGATIK		KENKETAK GUZTIRA TOTAL DEDUCCIONES PTS	TASAK GUZTIRA TOTAL PTS	
					TASAS SACRIFICIO, DESPIECE Y ALMACENAMIENTO	TASAS GASTOS ADMINISTRATIVOS	TASAS POR INVESTIGACIÓN DE RESIDUOS	DEDUCCIONES POR GASTOS ADMINISTRATIVOS	DEDUCCIONES POR COSTES DE AUXILIARES VETERINARIOS									
					UNITATEKO EDO TM-KO KUOTA	PEZETAK GUZTIRA	UNITATEKO KUOTA	PEZETAK GUZTIRA	UNITATEKO KUOTA	PEZETAK GUZTIRA			UNITATEKO KUOTA	PEZETAK GUZTIRA	UNITATEKO KUOTA	PEZETAK GUZTIRA		
					CUOTA POR UNID O TM	TOTAL PTS	CUOTA POR UNID	TOTAL PTS	CUOTA POR UNID	TOTAL PTS			CUOTA POR UNID	TOTAL PTS	CUOTA POR UNID	TOTAL PTS		
GUZTIAK																		
TOTALES																		